



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

Mikel Gereka Zelaia  
José María Alzuri Vertiz  
María Izaskun Altxu Ariztegi  
Javier Bereau Miquelarena  
Carmelo Ayoroa Hualde

2016ko azaroaren 10ean, 19:30 direnean, Ohiko Osoko Bilkuran elkartzten dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. María José Bereau Baleztena — Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel José Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

## **1. AURREKO BILKURAKO AKTA ONETSI.**

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dien deialdiarekin batera banatu ziren aurreko 3 Bilkureko aktei. Inork ez du azalpenik egin eta aho batez onartu dira aktak.

## **2. ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA. 3 POLIGONOKO 11 ETA 12 PARTZELAK (AURTITZ).**

Planeamendurako Arau Subsidiarioen antolamenduko egiturazko determinazioetako aldaketa, 3 poligonoko 11 eta 12 partzei dagokiona, hasiera batean onetsi zen 2014ko irailaren 18ko Osoko Bilkuran. J.L.E.A., M.M.U. eta I.D.A. dira espedientearen sustatzaileak.

Urriaren 13an bilera egin zen sustatzaileekin eta arkitekto aholkulariekin, aldatu edo osatzeko dauden zenbait puntu adosteko. Proposatutako irizpideei oniritzia eman zaie. Agiri berriak aurkeztu behar dituzte sustatzaileek; bitartean, geldirik jarraitzen du espedienteak.

## **3. KATASTROAREN ALDAKETA. 2 POLIGONOKO 920 ETA 537 PARTZELAK (ITUREN).**

J.B.M.k agiri hau aurkeztu zuen: “Iturengo 2 poligonoko 920 eta 537 lursailen neurketa, azalera eta mugen txosten teknikoa. “Bere-Lain” etxea eta lotutako lursailak”. J.M.A.I. arkitekto teknikoak egin du agiria. Katastroa errealitatera egokitzea da haren helburua. Bide batez, gauzatzen da 69,27 metro karratuko lagapena Udalarentzat.

Agiria aztertu ondoren, aho batez erabaki da aldaketa onestea.

Javier Bereauk ez du erabaki honetan parte hartu.

## **4. SUTARAKO EGUR LOTEAK.**

Sutarako egur loteak markatu ziren *Arrantzelai* parajeen, etxeetan entregatzeko. Enpresa hauei eskatuko zaie aurrekontua, egurra moztu eta ekartzeko (prezioa tonako): P.A., K.E. eta J.M.M.. Bideetan lanaren bat egitea beharrezkoa balitz loteak ateratzeko, tonako jartzen den prezioaren barruan egon behar du horren kostua.

## **5. ZENBAIT ESKAERA.**

1. S.B.B.k baimena eskatu zuen *Asurdi* parajeen erori diren 3 haritz amerikar aprobetxatzeko. Mendizainak egindako balorazioa ikusi ondoren, aho batez erabaki da B. jaunari saltzea arbolak, 27 eurotan.



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

Alkatea abstenitu egin da.

Carmelo Ayoroa bilerara sartu da.

2. Idazkariak irakurri du, Aurtizko gurasoen izenean, eskaera hauekin aurkeztu den idazkia: frontoiko 3 kale-argiak piztuak mantentzea neguan; frontoiaren gaineko aldea ixtea; Udal langileak parkea garbitzea. Eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da parkea garbitzeko ardura ematea garbitzaileari eta soluzio bat bilatzea frontoiko arazoak konpontzeko.

3. I.M.k Aurtizko bestetako aurrekontua aurkeztu zuen, 3.348 euroko gastuen zerrendarekin eta diru-laguntza eskatu zuen bestak antolatzeko. Aho batez erabaki da M. andreari eskatzea gastuen eta diru-sarreraren frogagiriak aurkeztea (fakturak, errezihoak, kontu korrontearen laburpenak). Haiek aztertu eta gero erabakiko da diru-laguntzaren zenbatekoa.

4. M.T.E.k eskatu zuen bere etxearen parean dagoen kutxatila (arketa) konpontzea, maiz tratatzen delako. Konpontzea erabaki da.

5. Guraso Elkarteak eskatu zuen 2016-2017 ikasturtean jantokia erabiltzeko baimena. Baimena ematea erabaki da aho batez.

6. C.E.A.k baimena eskatu zuen, toloak jartzeko Herriko Ostatuko arkupean. Baimena ematea erabaki da aho batez.

7. Aho batez erabaki da, 200 euroko diru-laguntza ematea *Egun Kulturalak* antolatzeko (abendua 2a, 3a eta 4a).

8. “GENERO INDARKERIAREN AURKAKO UDALAK” kanpainari atxikimendua erakusteko, aho batez onetsi da aldarrikapen hau:

“HERRITARGO KONPROMETITU BATEN ALDE, EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRA.

Azaroaren 25ak balantze egiteko eguna izan nahi du, emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan egiteke geratzen diren pausoei, erronkei eta hobekuntzei buruzkoa. Horrez gain, bizirik irteeta lortu duten emakumeei omenaldia egiteko eta eraildako emakumeak oroitarazteko eguna ere izan nahi du. Egun honetan errealitate hori ikusarazi nahi da eta gizartea kontzientziatu eta sentsibilizatu.

Emakumeen aurkako indarkeria fenomeno estrukturala da, gure gizartean dauden maila sozial guzti guztietan, herrialde eta munduko leku guztietan eta urteko egun guztietan ematen dena. Indarkeria mota honen biktimak emakumeak eta neskatok dira, emakume eta neska izate hutsagatik, diskriminatuak eta behartuak dira euren bizitzetako esparru eta une guztietan.

“Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko Apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legeak” ezartzen duen bezala, emakumeen kontrako indarkeriaren definizioa ondorengoa da: “emakumea izateagatik emakumeen kontra bideratzen dena edo haiengan proportziorik gabeko eragina duena, genero diskriminazioaren agerpen gisa eta emakumeentzako kalte edo oinaze fisikoa, psikologikoa, sexuala edo ekonomikoa dakarrena edo ekar dezakeena, mehatxuak, beldurrarazteak eta hertsatzeak edo askatasun-gabetze arbitrarioak barne hartuta, bizitza publikoan nahiz pribatuan gertatzen direnak. Indarkeriaren biktima diren emakumeen kontzeptuaren barruan neska adingabeak ere sartuta daudela ulertzen da”. Emakumeen aurkako



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

indarkeriaren arazoa ez da emakumeen arazo bat, gizarte osoaren arazo bat baino, eta, horregatik, gizarteak bere osotasunean erantzun behar du. Azken urteotan aurrerapenak eman dira arau-mailan, zein hezkuntzako eta indarkeria aurrezaintzeko programak ikastetxeetan inplementatzen edota gizarte kontzientziatzeko eta sentsibilizatzeko kanpainak planifikatzen besteak beste. Emaitza positiboak lortu ere dira gizarteak eta erakundeek erantzun mailan, esaterako, Nafarroako herritarrek San Ferminetan erakutsitakoa, era eraginkorrean agertuz eta gaitzespena erakutsiz festetan zehar gertatutako sexu-erasoen aurrean eta argi utziz jarrera mota horiek ez direla onartzen eta ez dutela sortzen, ezta laguntzen ere, gizarte demokratikoa eta berdintasunezkoa lortzeko bidean.

Gaur egun gertatzen diren beste errealitate batzuk oroitarazten digute gatazkan dauden herrietako emakumeek bizi duten indarkeria, eta Europako immigrazio politiken aurrean herri plataforma zein gizarte mugimenduetatik beren ezinegona adierazteko antolatzen diren ekintza eta ematen diren erantzunek egoera hauek guztiak salatu nahi dituzte: pertsonen salerosketa, emakume eta nesken aurkako erasoak eta bortxaketak, giza eskubideen urraketak.

Hori guztia dela eta, era kolektiboan, Iturengo Udalak, honakoa ADIERAZTEN DU:

**GURE GAITZESPENA** indarkeria sexistari: agerian dagoenari nahiz ikusten ez denari, eta haren adierazpen guztiei, diskriminazioaren eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun faltaren emaitza direnak.

**GURE KONPROMISOA** Herri Erakunde gisa, era aktiboan ezberdintasunen eta emakumeen eta gizonen arteko harreman ez orekatuen kontra lanean jarraitzeko, indarkeria-haztegia direlako, baita gure konpromisoa emakumeen aurkako indarkeria mota guztien aurrean erantzutetako ere, berdintasuna politika guztien ardatza izanen den legegintzaldi batean.

**GURE ELKARTASUNA** edozein eraso jasan edota hildako emakume horiekin guztiekin baita muturreko indarkeria sexistaren biktima izan direnekin ere. Gure babes osoa beraiendako eta beren familiendako.

**ETA HERRITAR GUZTIAK GONBIDATZEN DITUGU**, emakumeen aurkako indarkeria gaitzespen jarrera erakusten jarraitzeko, banakoarena nahiz taldekoarena, indarkeria mota hori errotik kentzeko. Baita emakumeen bizitzan ematen diren indarkeria mota guztiak eta kontrol patriarkalaren adierazpen guztiak salatuz. Eta, azkenik, azaroaren 25aren inguruan antolatuko diren jardueretan parte hartuz animatu nahi ditugu.

Horrela, guztiok batera aurrera jarraituko dugu, geroz eta jasangarriagoa, demokratikoagoa, bidezkoagoa eta berdina izanen den gizarte baten bidean.”

9. Mozio hau onetsi da aho batez:

“NAFARROA ASKATASUNAREN ETA DEMOKRAZIAREN ALDE. FAXISMOARI EZ

Inoiz ez zuten demokrazia onartu eta inoiz ez zitzaizkien haien krimenak damutu.

II Errepublikaren aurka konspiratzen hasi ziren, ondoren altxamendu militar, zibila eta eklesiastikoa burutu zuten (Gurutzada Santu Nazionala deituz) eta penintsula odol errugabez estaltzen jarraitu zuten haiek bezala pentsatzen ez zutena erahilez, herria eta langileria gerra inzibil krudel batean sakrifikatuz. Ondoren diktadura frankista ezarri zuten.

36ko kolpetik 80 urte pasa dira eta hainbeste krimen eta hondamenen egileak, haien oinordeko politikoekin batera, ez dira inoiz epaituak izan, gaur egun inpunitatea osoa dutelarik.

80 urteren ondoren, erasoak, pintadak eta mehatxuak ikusten ari ditugu azken hilabeteotan Nafarroan, oroimen historikoa, sindikala, euskara, antiarrazakeria edota sanferminetako peñak bezalako alor sozial ezberdinetan lanean ari diren herri kolektibo eta sozial mota guztien aurka.

Ez da hor gelditu. Azken zakarkeria Barne Ministroarena izan da, “*Gerra Zibila 40 urte, edo ez dakit zenbat urte geroago irabazi nahi duenik dago*” esanez. Zalantzarik gabe,



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

horrekin gerra zibil bat irabazi zutenen defentsa argia egiteaz gain, demokraziaren aurkako kolpe militar faxistarena egiten du.

Halaber eta Nafarroako Parlamentuak 2013an onartutako Oroimen Historikoaren Foru Legea betez, Iruñeko Udalak Mola eta Sanjurjoren gorpuzkiak, bai eta bertan ehortzirik dauden faxista guztienak haien sendiei itzultzea erabaki du. Bazen orduan, baina bitartean, Emilio Mola haien “zuzendari” izan zen kolpistek erahildako pertsonen milaka senidek, haienak areka eta amildegietan dituzte.

Horrekin, nafar herritargoak gure oroimena berreskuratzeko norabidean pauso txiki bat emango dugu, gure duintasuna berreskuratzeko. Egun horrek, Errepublika defendatzeko borrokatu zutenen aitormena egiteko eguna izan behar du, frankismoaren aurka aritu zirenean.

Baina faxismoa ez da oroipen izugarri bat bakarrik, bere itzala luzea baita. Europako mugetan gertatzen dena eta orain dela hamarkada ugaritik hona gertatu izan dena, faxismoaren hazia besterik ez da, berriro ere pertsonak kategorizatuz. Europa hau, ustezko balore demokratikoena, orain gutxi batzuen pribilegioak babesteko gotorleku bihurtua, kapitalaren interesak pertsonen gainetik jartzen dituen Europa da, xenofobiak mozorroturiko faxismoa da.

Faxismo ezkutuagoa ere jasaten dugu, adierazpen askatasuna murrizteko saiakeretan agertzen dena eta, zentzu honetan, mozal legea horren adierazle argia da.

Garrantzitsua deritzogu eskoletan eta unibertsitate irakaskuntzan gure historiari buruz argi hitz egitea eta gure herriari hainbeste sufrimendu sortu ziotenak agerian uztea. Norabide honetan pausoak ematen baditugu, belaunaldi berriei etorkizuna askatasunean eta duintasunez bermatu ahal izango diegu egunen batean.

Era berean, oroimenaren aitorea ez da osoa izango, gizarte zeharo demokratikoa, faxismoa bere mozorro berri edo zaharretan gaitzesten duena lortzeko balore errepublikarrak berreskuratzeko gure borondatearen baieztapena bihurtzen ez bada.

Gaur, atzo bezala, demokrazia ez da oparitzen zaigun zerbait, egunero borrokatu beharreko zerbait baizik.

Horregatik guztiagatik, Udaleko Osoko Bilkurak  
GAINDITZEN DU:

1. Iruñeko Udalak Mola eta Sanjurgo general kolpisten gorpuzkiekiko hartutako erabakiari gure babesa adierazi, 1936ko estatu kolpe faxistaren eta hortik eratorritako gure herriaren jazarpen eta krimen guztien arduradun baitira.

2. Hobitik ateratze honen alde azaroaren 19an hamarna bat alderdi politikok, sindikatuk eta erakunde sozialek deitutako manifestaldiari gure babesa agertu bai eta udalerrri honetako bizilagun guztiak animatu bere Udalarekin batera parte har dezaten.

3. Oroimen historikoaren mugimenduak Nafarroan egiten ari dituen ekimenei Udalbatza honen konpromisoa nabarmendu, 1936ko estatu kolpe faxistaren, frankismoaren eta bere diktaduraren ondorioz gertatutako krimenen Egia, Justizia eta Ordaina aldarrikatzeko.”

## **6. ALKATETZAREN EBAZPENAK.**

Alkateak emandako ebazpen hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza:

- 2016ko urriaren 11koa, M.B.U.G.ri lizentzia eman ziona, 1.266,73 metro karratu bereizteko *Loia* parajea dagoen 2 poligonoko 86 partzelatik.

- 2016ko urriaren 11koa, J.A.J.ri lizentzia eman ziona, 14.716,24 metro karratu bereizteko *Ameztia* parajea dagoen 1 poligonoko 132 partzelatik.

- 2016ko urriaren 18koa, Latsaga Auzoko 1 poligonoko 30 partzelan eraiki duten familiabakarrako bi etxebizitza elkarri atxikiak lehen aldiz erabiltzeko eta okupatzeko lizentzia eman ziona M. eta N.A.S.ri.



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

## **7. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.**

Agiri hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza: Abeltzaintzako zerbitzuak bidali duen esplotazioen erregistroan izandako mugimendua —Ganados Mendiburu SLren alta—; Nafarroako Gobernura bidali den baso-aprobetxamenduko baimen eskaera —S.A.rena—; *Mitxelteneko zubia* konpontzeko eskatu den diru-laguntza; Mendietako zuzendari orokorraren 399 Ebazpena, 2016ko aprobetxamenduen plana onetsi zuena; Kantauriko Ur-Konfederazioak 2016ko irailaren 29an emandako Ebazpena, M.C.ri baimena eman ziona 2 poligonoko 108 partzelan etxebizitza eraikitzeko; Ingurumen eta Lurraldearen Antolamenduko zuzendari orokorraren 715/2016 Ebazpena, hertsatzeko isuna jarri ziona J.A.E.ri; Turismo eta Merkataritzako zuzendari orokorraren 330E/2016 Ebazpena, Herriko Ostatuari kategoria aldatu ziona.

## **8. HERRIAREN TXANDA (GALDE-ESKEAK).**

Ez da galderarik egin.

Eta bertzerik ezean, 21:30 direnean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.